

# BALIO PROPOSAMENA

Lehenengoz, esan beharra dago hainbat produktu desberdin eskainiko dugula. Hala nola, oihalezko poltsak, poltsa hidrosolbagarriak eta bio-edalontziak, plastikorako ordezkari gisa.

Hasteko, gure bio-produktuek konpontzen dituzten arazoak azalduko ditugu; egunero gure kaleetan zenbait plastikozko hondakinak aurkitzen ditugu, askotan kezkatzen gara egoera horretaz, ez diolako soilik eremuaren edertasunari eragiten, baizik eta ingurunea kutsatzen duelako, kalte horrek gure osasunera zuzenean eragiten du. Gainera, lehen aipatutako plastikoa itsasoan edo ibaian amaitzeko arriskua dauka eta ibaietan eta itsasoan amaitzen badira plastiko horiek, guk jaten ditugun arrainak plastiko horiek izango dituzte, orduan azkenean arrainak jaterakoan, plastikoa jango dugu, eta horrek gure osasuna kaltetu ahal du.

Hondakin plastikoen arazo handiena hain zuzen ere materiala duen ahalmen bera da: ez direla degradableak eta iragazgaitzak direla. Honek esan nahi du, lurrera botatzean, denbora mugagabeen egongo direla erdian. Apur daitezke argiaren laguntzaz (foto-degradazioa) baina ez dira desagertuko. Plastikoa mota bakoitzak (asko daude) jarrera ezberdina du baina beti oso iraunkorrak dira. Hau jakinda, egoera honekin jarraitzen badugu *plastikozko botilaz beteko dira ozeanoak 2050erako*.

**La preocupante velocidad a la que está creciendo la gran isla de basura del Pacífico que ya tiene tres veces el tamaño de Francia**

Helen Briggs  
BBC

<https://www.bbc.com/mundo/noticias-43515386>

EL PAÍS

Materia

PLÁSTICO >

**Los microplásticos ya han llegado al intestino humano**

Un estudio piloto demuestra que las heces de personas de varios países contenían partículas de una decena de plásticos

[https://elpais.com/elpais/2018/10/22/ciencia/1540213637\\_935289.html](https://elpais.com/elpais/2018/10/22/ciencia/1540213637_935289.html)

## Hallada muerta en Indonesia una ballena con más de 1.000 objetos de plástico en el estómago

Aún se desconoce la causa del fallecimiento del animal, pero en su cuerpo se han encontrado seis kilos de desechos plásticos, entre los que había dos pares de chanclas y más de 100 vasos

[https://elpais.com/elpais/2018/11/20/mundo\\_animal/1542713402\\_655410.html](https://elpais.com/elpais/2018/11/20/mundo_animal/1542713402_655410.html)

## El plástico inunda nuestros océanos: todas las tortugas están contaminadas

Más de cien tortugas encontradas en dos océanos y un mar diferentes y pertenecientes a siete especies distintas sufren el mismo problema: hay microplásticos en sus estómagos

[https://www.elconfidencial.com/tecnologia/ciencia/2018-12-05/contaminacion-plasticos-tortugas\\_1689006/](https://www.elconfidencial.com/tecnologia/ciencia/2018-12-05/contaminacion-plasticos-tortugas_1689006/)

Gai honi buruz erakunde politiko garrantzitsuenak parte hartzen hasi dira, plastikozko kontsumoa murriztu ahal izateko, eta ondorioz, plastikozko produktuen salmenta gero eta mugatuagoa izango da hurrengo urteetan. Egoera hau hainbat egunkarietan ikusi ahal dugu azken hilabeteetan, berri honetan adibidez:

## La Unión Europea declara la guerra a los plásticos de un solo uso

La legislación, adoptada en un tiempo récord tras la propuesta inicial de la Comisión Europea en mayo, prohibirá una decena de categorías de productos que representan el 70% del plástico que termina en los océanos y en las playas

<https://elcomercio.pe/mundo/europa/union-europea-declara-guerra-plasticos-noticia-mndc-589262>

## Europa declara la guerra al plástico

Plásticos de un solo uso: estas son las nuevas normas de la Unión Europea para reducir la basura marina

[https://www.nationalgeographic.com.es/mundo-ng/actualidad/europa-declara-guerra-plastico\\_12762](https://www.nationalgeographic.com.es/mundo-ng/actualidad/europa-declara-guerra-plastico_12762)

Lehen-lehenik, aipatu behar da bi arlotan desberdinak izango garela; diseinua eta produktu kutsagarrien ordeztea.

**Diseinuari** dagokionez, ez dugu kolore bakarrekin osatu, baizik eta, esaldi erakargarriak eta esaldi horiekin erlazionatuta dauden ilustrazioak ere bai. Gure ustez, mezua da gure diseinua desberdintzen duen ezaugarria, hau da, ez da bakarrik gauzak garraiatzeko poltsa huts bat, ingurumenarekin konpromisu bat adierazten du.



**Produktu kutsagarrien ordezkartzari** dagokionez, plastikoz egindako edalontzi berezi batzuk eskainiko ditugu, edalontzi hauek material berezi batekin eginda daude, material honek suntsitzeko prozesu azkarragoa dauka, azukre-kanaberaz egindakoak direlako. Adibidez, azukre-kanaberekin egindako materiala 2-10 egunen artean suntsituko da, denbora tarte txiki bat da, plastikozko edalontzi bat suntsitzeko behar den denbora 150 urte direla kontuan hartuz. Beste aldetik, plastikozko poltsak ordezkatzeko oihalezko poltsak eskainiko ditugu, poltsa hauek ere bai diseinu polit eta erakargarri bat eramango dute, horrela jendeak behin eta berriro erabiltzeko aukera izango du nekatu barik. Gainera, plastikozko poltsak ordezkatzeko beste aukera bat merkaturatuko dugu, poltsa hidrosolbagarriak, alkohol polibinilikoaren alderaketa baten ondorioz, poltsa hauek urarekin kontaktuan jartzean disolbatzen dira, ez dira kutsagarriak eta erabilera bakarreko plastikozko poltsen ordezkaria izango lirateke.

**Ondorioz**, gure balio proposamena, kualitatiboa da, hau da, produktuarengan bezeroak izango duen pertzepzioarekin zerikusi handiagoa du, bezeroak gure produktua aukeratuko du gure diseinuengatik eta ingurumenari laguntzen diogulako.

Lehen aipatu dugun bezala, lehiakideengandik bereiz gaitzke honakoen bitartez, nahiz eta berritasun oso adierazgarria ez izan, beste herrialdeetan gure produktuak ekoizten duten beste enpresa batzuk daudelako. Nahiz eta berritasun teknikoa oso nabaria ez izan, gure produktua lehiakideengandik bereiz daitezke pertsonalizazioa aipagarria delako, lehiakideek eskaintzen ez duten alderdi bat. Esan dugunez, diseinua ez da arrunta izango, baizik eta, esaldi erakargarriak eta esaldi horiekin erlazionatuta dauden ilustrazioak ere eskainiko ditugu.